

## DEFINIZIOAK

# SALGAIAK ERREPIDEZ GARRAIATZEAREN ESTADISTIKA (132714)

### Garraio eragiketa

Salgai mota bakarraren garraioa, salgaia zamatzen den irteera puntutik, zama deskargatzen den helmuga puntura arte.

Definizio honen arabera, ibilgailu berean bi salgai ezberdin garraiatzen badira, garraioko eragiketa ezberdin bi legez kontabilizatuko da, nahiz eta ibilgailuak egindako desplazamendua bakarra izan.

Era berean, salgaiaren parte baten zamatze-deskarga lana, garraio eragiketa bakoitzaren hasiera eta bukaera dira.

Hori dela eta, ematen diren emaitzak salgai desplazamenduei dagozkie, baino beti ez datoz bat ibilgailuak egindako desplazamendu kopuruarekin.

Hutsik egindako eragiketak ere jasotzen dira, alegia, deskarga puntu batetik, zamatze puntu batera egindako salgaien desplazamendua.

### Errepide bidez salgaiak garraiatzeko ibilgailua

Errepideko ibilgailua, propulzio-sistematzat motor bakarra duena. Ibilgailuaren helburu nagusia edo bakarra, salgaiak garraiatzea da edo salgaiak garraiatzeko ibilgailuak atoian eramatea.

Ibilgailu mota:

1. Ibilgailu zurruna edo kamioia: Errepideko salgai garraioaren ibilgailuak, propulzio mekanikodun medio propioak dituena.
2. Atoaia: Salgaiak garraiatzeko gaitasuna duen errepide bidezko ibilgailua, errepideko ibilgailua automobil bati lotu ahal izateko diseinatua.
3. Buru traktorea: Propulzio mekaniko propioa duen ibilgailua eta erdi-atoia arrastaka eramateko gaitasuna du.
4. Erdi-atoia: Aurreko ardatzik ez duen atoaia, arrastaka eramaten duen ibilgailuari lotua. Atoiaren zatia bat, pisuaren parte jakin bat eta zamaren parte bat buru traktorearen gainean doaz.

Kamioi eta buru traktoreak dira aukeratutako laginari dagozkion ibilgailuak. Atoi eta erdi-atoien berri ematen digute aukeratutako ibilgailuak arrastatzeko erabiltzen dituenen.

Garraiorako eragiketa honako lau aukera hauen arteko baten bat hartzerakoan egiten da:

1. Ibilgailu zurruna edo kamioia
2. Atoaia
3. Buru traktorea erdi-atoi gabe
4. Buru traktorea erdi-atoiarekin

## **Zerbitzu mota**

Bi motatakoak hartzen dira kontuan, hirugarrenentzat garraioak egiteko aukeraren arabera. Bata eta bestearen arteko ezberdintasuna dokumentu administratiboak( garraio txartelak) ditu oinarri.

1. Garraio pribatuko zerbitzua edo norbere konturakoa: Ibilgailua erabiltzen da, bakar bakarrik, norbere garraiorako zerbitzua ordaintzen ez denean. Hots, baimenaren jabearena da ibilgailua eta bere salgaiak garraiatzeko erabiltzen du.
2. Garraio publikoaren zerbitzua edo norbere konturakoa: Errepidez bidez salgaiak garraiatzeko erabiltzen da ibilgailua ordain bidez eta inoren kontura.

## **Ibilgailuaren zama-edukiera**

Agintaritza eskudunak beste ibilgailu bat zamatzeko onartzen duen salgaien pisua.

## **Garraio operazio mota**

Mota hauetakoak ditugu:

1. Bildu eta banatzeko garraioa: Salgai jakin baten, edo harekin lotutako baten garraio eragiketan, zamaketa eta deskarga ibilbidean zehar zatikatutako sortetan eta hainbat geldialdirekin egiten bada( adibidez, garagardo botilen banatu eta ontzi hutsak batzea).
2. Zuzenean leku bi lotzeko garraioa: Egunean zehar behin eta berriro leku ezberdin biren arteko joan-etorriak egiten dituen garraioa. Salgaia, distantzia eta irteera eta helmuga puntuak berdinak dituen, bai joanekoan zein etortzerakoan. Buelakoan dituen salgaiak ezberdinak izan ohi dira joanekoarekin alderatuz, edo bietariko batean hutsik joan daiteke. Joanaldi bakoitza eta etortzeko bidaia bakoitza eragiketa ezberdin bat da.
3. Ohiko garraioa: Aurreko modalitateetan jaso ez diren garraio eragiketa guztiak.

## **Garraiatutako salgaiak**

Leku batetik bestera garraiatzen den gauza higigarria.

Salgai ezberdin bi garraiatzen direnean ibilgailu berak kontuan hartuko dugu bi garraio eragiketa egiten dituela.

Salgaien honako sailkapen hau erabiltzen da:

- Nekazaritza produktuak eta bizirik dauden animaliak.
- Elikagaiak eta belar-bazka.
- Petrolio-produktuak.
- Gordinean ekoiztutako edo manufakturatutako mineralak eta eraikuntza materialak.
- Makinak, ibilgailuak, manufakturatutako gaiak eta transakzio bereziak.
- Bestelako salgaiak: honakoak daude:
  - Erregai mineral solidoak.
  - Birgaldaketarako mineral eta hondakinak
  - Metalurgia-produktuak
  - Ongarriak.
  - Produktu kimikoak.

## **Garraiatutako tona kopurua**

Garraio eragiketa bakoitzean garraiatzen den salgaien pisua jasotzen du. Pisua gordina du oinarri, alegia, garraiatutako salgaiaren pisuaz gain, bilgarrien pisua, eta , kasurako, edukiontzia ere aintzat hartzen dira.

Ohiko garraioko eragiketetan, zamatze eta deskarga puntuen artean garraiatzen diren tona kopuruak hartzen dira aintzat.

Biltzeko eta banatzeko garraio motan, ibilbidearen punturen baten izandako gehieneko zamaren pisua izango da aintzat hartu beharrekoa galdera-sorta betetzeko.

Zuzenean leku bi lotzeko garraio modalitatean, galdera-sortan bidaia bakoitzean ibilgailuak daraman batezbesteko zama jasoko da eta egun bakoitzean egindako ibilbide kopurua. Datuak ustiatzerakoan, biderkatu egiten da batezbesteko eguneko zama eta eguneroko maiztasuna.

### **Operazioaren irteera eta helmuga**

Eragiketaren irteera salgaia zamatzen den lekua da, eta helmuga lekua salgaia, osorik edo parte bat deskargatzen den lekua. Zamatze edo deskarga bakoitzak eragiketa berri bat sortzen du.

Irteera eta helmuga aintzat hartuta eragiketak honela sailkatu daitezke:

1. Herri artekoak
2. Herri barrukoak
3. Eskualde barrukoak
4. Eskualde artekoak
5. Nazioartekoak

Sarrera eta helmuga puntuak erkidego autonomoen mailan sailkatzen dira, inkestan jaso daitekeen lurralde mailako banaketa-maila altuena da. Nazioarteko eragiketetan herrialde esanguratsuenak hartu dira aintzat.

### **Eragiketaren distantzia**

Garraio arrunteko modalitatean eta zuzenean leku bi lotzeko garraioan, errepide bidez egiten den distantzia zamatze puntutik deskarga puntura arte.

Bildu eta banatzeko garraio motan, ibilbide osoan zehar egiten distantzia jasotzen da, ibilgailuaren abiapuntua den tokitik salgaia erabat deskargatzen duen puntura arte. Alegia, ibilgailuak egiten duen kilometro kopurua hutsik ez doan bitartean.

Hutsik doan eragiketetan, azken deskarga egiten duen puntutik ibilgailua berriz zamatuta arte egindako distantzia.

### **Tonak-kilometroak**

Garraio eragiketa bakoitzerako kalkulatzen da garraiatutako tonak egindako kilometroekin biderkatuz.

Bildu eta banaketa garraio eragiketen kasu partikularrean, gutxi gorabeherako tona-kilometroen estimazioa lortu asmoz, tona eta egindako kilometroen arteko biderketa bigatik zatitzen da.